

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2012	R8/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

R8/2017 Ebazpena

21/2012 Espedientea

Gasteizen, 2017ko maiatzaren 12an,

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako erabaki hau hartzen du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan, ----- NAN zenbakia duen ZERGAPEKOAREN zerga-helbideari dagokionez; gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 21/2012 espediente-zenbakiarekin, Javier Muguruza Arrese jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztu zuen bere zuzendari nagusiaren idazkiaren bidez. Idazkiak Posta Zerbitzuaren 2012ko maiatzaren 24ko data zuen, eta hurrengo egunean, 25ean, erregistratu zen horren sarrera Arbitraje Batzordean.

Aipatutako idazkian azaltzen da, 2012ko otsailaren 24an, Euskadiko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Bereziaren Erakunde

Harremanetarako Eskualdeko Sailaren buruak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi ziola, Itunaren 43. Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera, ZERGAPEKO jaunaren helbide fiskala Bizkaitik 1. HELBIDE FISKALERA (Madril) aldatzeko proposamena, eraginetarako data 2007ko urtarrilaren 1a duela. Helbide fiskala aldatzeko proposamena BFari jakinarazi zitzaionetik bi hilabeteko epea igaro da horri erantzunik eman gabe; horregatik, proposatutako helbide fiskalaren aldaketarekin ez zegoela ados ulertu zuen Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak. Horrenbestez, Arbitraje Batzordearen erregelamenduaren 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabeteko epearen barruan, gatazka hau jarri zuen.

Planteatzeko idazkiak zehazten duenez, helbidea aldatzeko proposamen horrekin batera Madrilgo ZAEAREN Ikuskapeneko Eskualdeko Sailaren 2011ko azaroaren 22ko txostena ere bazegoen, hari beste agiri batzuekin batera erantsita.

2.- Idazki horretan eta horrekin batera aurkeztutako agirietan honako aurrekari nagusi hauek ageri dira, laburbilduta:

1) ZAEAREN arabera ZERGAPEKOAK helbide fiskala zuen etxebizitza, 1. HELBIDE FISKALEAN (Madril) dagoena, 1. ERAKUNDEAREN jabetza da; haren partaidetzaren % 99,99a 2. ERAKUNDEAK du, X-Y sendiaren (ZERGAPEKOAREN seme-alaben abizenak dira horiek) ondare-sozietatea denak, eta 2009ra arte ZERGAPEKOA ageri zen haren administratzaile gisa.

2) ZAEAKO agente batek etxebizitza bisitatu zuen 2010eko urriaren 14an, eta orduan segurtasun-zaindari batek (izen eta NANarekin identifikatuta) ZERGAPEKOA han bizi zen ez zekiela adierazi zion, eta horrela jaso zuen zegokion eginbidean. Agenteak geralekua etxebizitza haren ondoan zuen lineako autobus-gidari baten lekukotasuna ere jaso zuen (ez zuen identifikatu, ordea); lineako ohiko bidaiari batzuek esanda «ZERGAPEKOAK helbidea han duela» bazekiela adierazi zion hark.

3) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ZERGAPEKOA hainbat langileren enplegatzailer gisa ageri zen etxeko langileen araubide berezian Madrilgo 1. HELBIDE FISKALeko esandako etxebizitzan.

4) EINen datu-basean ZERGAPEKOA alta emanda ageri da Getxoko (Bizkaia) Udal Erroldan, 2. HELBIDE FISKALEAN.

5) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datu-basean ZERGAPEKOA hiru kotizazio-konturen titular gisa ageri da, eta horietan hauek daude jasota helbide modura: Getxo (Bizkaia), 2. HELBIDE FISKALA; Bilbo, 3. HELBIDE FISKALA; eta Madril, 1. HELBIDE FISKALA.

6) 1. UDALERRIKO (Ávila) erregistro zibilak ZERGAPEKOAREN eta EMAZTEAREN artean 2009ko irailaren 18an izandako ezkontzaren egiaztagiria egin zuen, eta bertan ezkontideen helbide gisa 1. HELBIDE FISKALA (Madril) ageri da.

7) 2011ko ekainaren 9an, ZAEAKo bi agentek Getxoko (Bizkaia) etxebizitza, 2. HELBIDE FISKALA, bisitatu zuten –ZERGAPEKOAK helbide fiskala han zuela adierazi zuen–, eta eginbidean jaso zuten han zegoen pertsona batek (ez zuten identifikatu eta etxean zergatik zegoen ere ez zuten jaso) adierazi ziela ZERGAPEKOA normalean ez zela helbide horretan bizi eta Madrilen bizi zela (1. HELBIDE FISKALA); halaber, Madrilen ere bazeuden bulego batzuetan (4. HELBIDE FISKALA) lan egiten zuela eta Bilbora noizean behin baino ez zela joaten adierazi zien.

8) Madrilgo NOTARIOA notarioaren aurrean 2011ko irailaren 19an emandako idatzian –zeinaren bidez ZERGAPEKOAK etxebizitza bat Madrilen eskuratu zuen, eskualdatzailea haren semea izanik–, ZERGAPEKOAREN aitortutako helbide gisa Getxoko (Bizkaia) 2. HELBIDE FISKALA ageri da. Eskritura horri bankuko hainbat frogagiri erantsi zaizkio, prezioa ordaintzea egiaztatzen dutenak; horietako batzuetan ZERGAPEKOAREN helbide gisa Madrilgo 4. HELBIDE FISKALA ageri da, eta beste batzuetan, berriz, Madrilgo 1. HELBIDE

FISKALA.

9) ZERGAPEKOAREN emazteak norberaren konturako lan-etekinak jasotzen ditu zerbitzuak Madrilen 3. ERAKUNDEARI emateagatik.

10) ZERGAPEKOA, BFAren arabera, Bilboko hiru banku-konturen eta Madrilgo beste baten titular gisa ageri zen. Eta, ZAEAREN arabera, lurralde erkideko hemezortzi banku-kontutan ere ageri da baimendu gisa; haien titularra ez zen, ordea; sozietateak, 3. ERAKUNDEA eta harekin loturaren bat zuten erakundeak ziren titularrak.

11) ZERGAPEKOA –erretiro-pentsioa jasotzen zuen–, hamabost sozietateren administratzaile ageri zen 2007-2015 artean; haietatik hamalauk helbide fiskala lurralde erkidean zuten, eta batek Bizkaian zuten helbide fiskala.

12) Gatazka hau izapidetu bitartean hil egin zen ZERGAPEKOA, 2015eko azaroaren 25ean.

3.- ZAEAK bere planteamenduen eta alegazioen idatzietan azaldu zuen zergatik ulertzen duen ZERGAPEKOAREN helbide fiskala Madrilen egon dela eta ez Bizkaian, eta zergatik ulertzen duen, horietan oinarrituta, Arbitraje Batzordeak ondorio bera atera behar duela.

Haren iritziz, espedienteko aurrekariak haren uziaren ziurtasuna egiaztatzen dute. ZAEAK garrantzi handia ematen dio Madrilgo 1. HELBIDE FISKALEKO etxebizitzaren ondoan geralekua duen autobus-lineako gidariak emandako lekukotasunari; izan ere, «zergapekoarekin zuzeneko harremanik ez badu ere, harekiko mendekotasun profesionalik ez izatea da, hain zuzen ere, lekukotasunari balio handiagoa ematen diona, askatasun osoz eta aginduei lotu gabe eman baitu. Pertsona horrek adierazi du autobus-linean bidaiatu ohi duten etxeko langileek esanda jakin duela ZERGAPEKOAK han duela helbidea, eta hori berresten du alde horretan zein etxeko lorategian ibiltzen eskuarki ikusi

izanak».

4.- 2016ko apirilaren 13ko bileran Arbitraje Batzordeak gatazka hau izapidetzeko erabakia hartu zuen, eta bere planteamendua BFari eta interesdunari jakinaraztekoa. Jasota dago jakinarazpenak egin zirela.

5.- 2015eko azaroaren 10eko idatzi baten bitartez (hurrengo 11n sartu zen erregistroan), BFAk alegazioak aurkeztu zituen.

Horietan dio ZERPAPPEKOAREN helbide fiskala, gatazka zehaztu duten aldi osoan, Bizkaian izan duela, Getxoko 2. HELBIDE FISKALEAN zehazki.

BFaren iritziz ZAEAREN uziak funtsean hauek hartzen ditu oinarri: «zerbitzu teknikoek egindako egiaztapenak; zergadunarekin zuzeneko harremanik ez duten pertsonen adierazpenak jaso dituzte horiek, eta horri buruzko informazio fidagarririk ezin dute eman, zuzenean egiaztatu ezin diren elementuak besterik ez», eta ondorioztatzen du ez duela «zergadunak aurkeztu aitortutako helbide fiskalaren ustezko egiazkotasuna indargabetzeko behar beste frogak».

6.- Espedientea amaituta, ZAEARI, BFARI eta interesdunari jakinarazi zitzaizkien. ZAEAK alegazioak aurkeztu zituen, 2016ko maiatzaren 18ko idatzi baten bitartez, eta hurrengo egunean sartu zen Arbitraje Batzordean. BFAk 2016ko apirilaren 22ko idatziaren bidez aurkeztu zituen; egun horretan bertan sartu zen erregistroan.

TESTAMENTU-ALBAZEAK, zendu zen ZERGAPEKOAREN testamentu-albazea gisa, 2016ko maiatzaren 19ko idatzia aurkeztu zuen (erregistroan hilaren 24an sartu zen), zeinaren bidez BFaren jarreraren alde egin zuen, «egiaztatutzat jotzen baitzuen ZERGAPEKOAREN helbide fiskala eta ohiko egoitza Getxoko (Bizkaia 48930) 2. HELBIDE FISKALEAN dagoen etxebizitza zela; probintzia horretan dago, hain zuzen ere, haren enpresa nagusiaren, 3. ERAKUNDEAREN (1. EGOITZA SOZIALA), egoitza soziala, eta toki horretan hartzen zituen erakundeari buruzko erabaki guztiak. Ez da, hortaz, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak nahi duena, Madrilen, 1. HELBIDE

FISKALEAN, dagoena, sozietate-egituraren zati batek Madrilen jarduera handia zuenez Madrilera joaten zenean egoteko tokia baino ez baitzen hura».

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka hau Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoko arauak aplikatuz ebatzi behar da; hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zuten, eta pertsona juridikoen helbide fiskala zehazten du. Arauak honako hauek dira:

«43. artikulua. Ohiko bizilekua eta zerga-egoitza.

Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko ahalik eta egun gehien ematen dutenean, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematen dutenean, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

Pertsona fisikoek ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen-egunean pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ondoretarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan. Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da

bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean – profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako».

...

Laugarrena. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

a) Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak».

2.- Gatazka hau ebazteko, hortaz, transkribatutako Ekonomia Itunaren 43. Bat artikularekin bat etorritik, ZERGAPEKOAREN ohiko egoitza 2007ko urtarrilaren 1etik zendu zen arte non zegoen zehaztu behar da, gatazka sustatu duen ZAEAk aldi horretara mugatzen baitu haren xedea.

3.- Lehenik eta behin, erabaki behar da ZERGAPEKOAREN ohiko egoitza Ekonomia Itunaren 43. Bat artikuluan horretarako ezarritako lehen araua aplikatuz ezarri daitekeen; hau da, 2007ko eta hurrengo ekitaldietako egun gehien gatazkan dauden bi administrazioetako zer lurraldetan eman dituen ikusita.

4.- Pertsona bat toki jakin batean egotea askotan zuzenean frogatu ezin den ekintza materiala da, gatazka honetan gertatu bezala. Orduan, aztarnen edo susmoen bidezko frogak bilatu behar dira; horien balorazio-estandarra Prozedura Zibilaren Legearen 386.1 artikulua ezartzen du.

5.- Bada, gatazka honetan elkarren kontrako zantzuak daude. ZERGAPEKOAK Madrilgo eta Bizkaiko etxebizitza bana zuen erabilgarri. Bizkaiko etxebizitzan erroldatuta zegoela jasota dago. Madrilgo etxebizitza helbide gisa jasota dago ezkontza-ziurtagirian. Bata zein bestea helbide gisa aitortu du interesdunak Gizarte Segurantzaren aurreko bi kotizazio-kontutan.

Madriren 2011ko irailaren 19an emandako notario-eskrituran Bizkaian bizi zela adierazi zuen ZERGAPEKOAK. Baina eskritura horretan bertan gehitutako banku-ziurtagiri batzuetan Madrilgo etxebizitza ageri zen helbide gisa, eta Madrilgo bulego bat beste batzuetan.

ZERGAPEKOAK bere titulartasuneko banku-kontuak zabalik zituen Bizkaian, baina aldi berean baimendu gisa ageri zen –ez titular gisa, ordea– Madrilgo, Valladolideko eta Leóngo hainbat banku-kontutan; harekin lotura zuten erakundeak ziren haien titularrak.

ZERGAPEKOA, erretiroa hartuta zegoena, helbide fiskala Bizkaitik kanpo zuten hainbat sozietateren administratzaile gisa ageri zen. 3. ERAKUNDEA, enpresa-taldearen jatorria eta administratzaile ere izan zuena, Bizkaian eratu zen, eta herrialde horretan atxikitzen du egoitza soziala.

ZAEAREN eginbideetan jasotako hiru lekukotasunen arabera, pertsona batek dio ezin duela zehaztu non bizi zen, eta Madriren bizi zela esan dute beste bik.

Hori bai, lekukotasun horien garrantzia neurtzeko, onartu beharra dago Madriren bizi zela esan zuten bi pertsona horiek ez zituztela izen-abizenekin identifikatu, ezta NANarekin ere.

Haietako bati buruz (ZERGAPEKOAREN Bizkaiko etxebizitzan zegoena), ez dago jasota harekin zer lotura zuen, ezta haren etxebizitzan zergatik zegoen edo haren bizilekua zergatik zekien ere.

Eta besteari dagokionez, Madrilgo etxebizitzaren ondoan gelditzen zen

autobus-lineako gidari bat zen, eta, gainera, berariaz esan zuen ez zuela zuzenean ezagutu ZERGAPEKOA Madrilen bizi zela, autobuseko bidaiari batzuek emandako lekukotasunaren bitartez baizik. Lekukotasun hori garrantzirik gabekoa da, hortaz.

Zergapekoaren emaztea hura presidentea zen sozietate baten Madrigo langile agertzea, halaber, Kode Zibilaren 69. artikulua aintzat hartuta ere (ezkontideak elkarrekin bizi direla jotzen du) ezin da zantzu erabakigarritzat hartu, horrek ez baitakar ezinbestean urtean egun gehiago egoten zela Madrilen.

Azken batean, espedientean jasota dauden zantzuak ikusita berdin ondoriozta liteke ZERGAPEKOA urtean egun gehiago egoten zela Madrilen zein Bizkaian.

Ekonomia Itunaren 43. Bat artikulua lehena aplikatuz ezin denez zehaztu ZERGAPEKO jaunaren ohiko egoitza zein den, hau da, ezin denez jakin gatazkan dauden bi administrazioetako zein lurraldetan ematen zuen urteko egun gehien, aipatutako manuan ezarritako bigarren araua aplikatu behar da.

6.- Ekonomia Itunaren 43. Bat artikulua bigarren araua zergapekoaren interesen guneari dagokio.

Horren arabera, zergaldiko egun gehien non igaro diren zehaztu ezin denean, pertsona fisikoek beren interesen gune nagusia duten Administrazio lurraldean izango dute beren ohiko egoitza. Hori PFEZen zerga-oinarriaren zati handiena duen lurraldea izango da, eta hori orain azaldu behar ez diren espezifikotasunen arabera kalkulatu da.

Kasu honetan, Administrazioek eta ZERGAPEKOAREN testamentu-albazeak ez dute beren alegazio-idatzian hori adierazi, eta, ondorioz, espedienteak ez du jasotzen ZERGAPEKO jaunaren PFEZen zerga-oinarriaren egituraren eta zenbatekoaren inolako xehetasunik gatazka zehaztutako

urteetan. Beraz, arau horrek ez digu balio horren ohiko egoitza zehazteko.

7.- Ondorioz, Ekonomia Itunaren 43. Bat artikuluan aurreikusitako hirugarren araua aplikatu behar da, haren ohiko egoitza zehazteko.

Hirugarren arauak ezartzen du, egonaldiaren edo interesen gunen nagusiaren existentziaren bidez ohiko egoitza lurralde zehatz batean zehaztu ezin denean, hori zergapekoak PFEZerako aitortutako azken egoitzaren lurraldean ezarriko dela.

Eta jasota dago ZERGAPEKOAK gatazka mugatzen den urteetako PFEZaren aitortpenak, 2007tik hil zen artekoak, Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean aurkeztu zituela, helbide fiskal gisa Getxoko (Bizkaia) 2. HELBIDE FISKALEKO etxebizitza aitortuta.

8.- Hori dela eta, ZERGAPEKOAREN ohiko egoitza eta, horrenbestez, helbide fiskala, 2007ko urtarrilaren 1etik hil zen arte, Bizkaian zegoela ondorioztatu behar dugu Ekonomia Itunaren 43. Bat artikuluko Hirugarren arauan ezarritakoari jarraikiz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- ZERGAPEKOAREN helbide fiskala, 2007ko urtarrilaren 1etik hil zen arte, Bizkaian zegoela ebaztea.

2.- Jarduerak amaitu eta artxibatzea.

3.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru

Aldundiari eta TESTAMENTU-ALBAZEARI, ZERGAPEKOAREN testamentu-
albazea den aldetik, jakinaraztea.